



MUGARIK GABEKO EKONOMIALARIEK GRADU-/MASTER-AMAIERAKO LANETARAKO PROPOSATUTAKO GAIAK

Unibertsitateko ikasleek gai bat aukeratu dezakete beren gradu-/master-amaierako lanerako, irakasle bakoitzak eskainitako gaien artean, edo nork bere gaia proposa dezake, eta hori lantzeko tutore bat bilatu. **MgEkook zurekin hitz egin dezakegu, zure interesekin bat datozen gaien proposamenak eta izenburuak aztertzeko eta haiei buruz eztabaidatzeko.** Jarraian, guretzat garrantzitsuak diren zenbait gaien berri emango dizugu. Horiei buruzko **baterako tutoretza-lana egin dezakegu** zuk hautatutako irakaslearekin. Unibertsitateko lanekin egiten dugun **laguntza-lanari buruz gehiago jakin nahi izanez gero, [egin klik hemen](#)**, eta kontsultaren bat egin nahi baduzu, idatzi lasai asko helbide honetara: ecosfron.euskadi@ecosfron.org.

GAIEN AURKIBIDEA:

INBERTSIO SOZIALKI ARDURATSUA (ISA)	2
INFORMAZIO EZ-FINANTZARIOA ETA KONTU-EMATEA	2
HEZKUNTZA KRITIKOA	2
FINANTZA ETIKOAK	3
GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK (GJH)	4
KOOPERATIBISMOA	4
EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA	4
EKINTZAILETZA ESSan	5
EKONOMIA FEMINISTA	7
EKONOMIA ZIRKULARRA	7
ZERGA-ARLOA	7
IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEAK (IAGE)	7
DESAZKUNDEA	8
BESTE GAI BATZUK	8



INBERTSIO SOZIALKI ARDURATSUA (ISA)


- ISA inbertsioen tipologia, ASG irizpideak (ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpideak), eta beste inbertsio-mota batzuekin dituzten aldeak *Motak: Funts etikoak, garapen jasangarrirako funtsak, funts solidarioak eta funts tematikoak*
- Batzorde etikoak eta haien rola ISako funtsetan (Spainsif-en kasua)
- ISA inbertsioek Espainian azken 20 urteotan izandako bilakaera
- Espainiako merkatuan dauden ISako produktuen azterketa (Santander Sostenible Acciones-en kasua) Espainian dauden ISako produktuen tipologia / katalogoa prestatzea, izan daitezkeen inbertitzaileen profilaren arabera
- Inpaktuko inbertsioak Espainian (Foro Impacto foroa eta Global Steering Group for Impact Investment)
- Hedapenari buruzko Erregelamenduak Espainiako merkatuan benetan duen aplikazioari buruzko azterketa

INFORMAZIO EZ-FINANZARIOA ETA KONTU-EMATEA

- Informazio ez-finanzarioa eta greenwashing-a
- 4. belaunaldiko giza eskubideen integrazioa informazio ez-finanzarioan
- Ekonomia sozial eta solidarioaren kontu-ikuskaritza Euskadin, eta haren erreplikagarritasuna informazio ez-finanzario gisa
- Ekonomia sozial eta solidarioaren kontu-ikuskaritza Euskadin, eta alderaketa konparatiboa ETE-entzako informazio ez-finanzarioko beste tresna batzuekin
- 16. GJHa eta informazio ez-finanzarioa (16.4 - Hemendik 2030era, nabarmen murriztea finantza-korronteak eta legez kanpoko armenak, lapurtutako aktiboen berreskurapena eta itzulera sendotzea, eta antolatutako delinkuentzia-mota guztien aurka borroka egitea)
- Informazio ez-finanzarioa eta ESSko jardunbide onenak (kontu-ikuskaritza soziala)
- Enpresentzat informazio ez-finanzarioa emateko dauden tresnen alderaketa
- Giza eskubideei buruzko kontu-ematea enpresetan: legedia, tresnak eta etorkizunerako erronkak
- Arreta egokia derrigorrezkoa izan beharko luke enpresentzat?

HEZKUNTZA KRITIKOA


- Finantza etikoek unibertsiteteen duten egoerari buruzko ikerketa egitea (ea haien berri dagoen, ea aztertzen diren...)
- Ekonomia eta GJHak, benetan lotuta daude unibertsitete-irakaskuntzan?



- Nola egin 2030 Agendarako ekarpenak toki-esparrutik: hezkuntzaren bidezko proposamen bat. Basque Country Agendaren irakurketa kritikoa, hezkuntzaren eta giza eskubideen aldetik. Euskadik 4. GHJrako ekarpenak hobetzeko proposamena (hezkuntzarekin zuzeneko lotura duten beste helburu batzuk ere sar daitezke: 5. eta 8. GJHak).
- Nola ari dira euskal hezkuntza-planak egokitzen gero eta testuinguru multikulturalago batean, kulturartekotasuna eta hezkidetza lortzeko proposamenak eta edukiak sartuta? Nola jasotzen da hori Basque Country Agendan? Zer proposamen daude eta zer eragin izaten ari dira benetan? Hezkuntza-jardunbide onak gizarte zibiletik
- Hizkuntza-irakaskuntzari dagokionez: hizkuntzak abiapuntutzat hartuta, nola sorraraz daitezke gizartearen eragina izango duen kulturartekotasunerako ekarpenak, gizartea berdintasun handiagokoa, solidarioagoa eta inklusiboagoa izan dadin? Ikasgela barrurako metodologiaren proposamena eta haien aplikazioa ikasgelatik kanpo.
- Euskadiko hezkuntzako zer alderdik dute eragina lan duin bat lortze aldera (8. helburua)? Zer balio sustatu beharko lirake zenbait irakasgaitan (ekintzaitza, zuzendaritza-kompetentziak, taldeen kudeaketa, giza baliabideak...)? Zer beste irakasgai sartu beharko lirake pertsona guztientzako lan duina sustatzeko?
- Zer-nolako arreta ematen zaio arrakala digitalari (Interneten sartzeko aukeren ondorioz sortutako arrakala) euskal hezkuntza publikoan? Zer zuzentze-neurri aplikatzen dira / aplikatu daitezke?
- Hezkuntzan, nola bideratzen da teknologia berrien erabilera giza garapen jasangarrira begira? (EJK baliabide digitalen bidezko irakaskuntzarako/ikaskuntzarako martxan jarritako berrikuntza-proiektua kontuan hartuta). Ikuspegi bikoitza kontuan hartuta: teknologia berrien erabilera hezkuntzan, eta haien erabilerari buruzko heziketa.

FINANTZA ETIKOAK

- Mikrofinantzen berri izatea eta kasu praktiko bat aztertzea da lan honen helburua.
- Banka etikoak Euskadin finantzaturako proiektuei buruzko ikerketa (ad. Labore)
- Finantza etikoak lurralde-garapenerako tresna gisa
- Egoera ahulean dauden kolektiboen inklusio finantzarioa finantza etikoetan. Kasu-azterketa, migratzaileek Fiare Banka Etikoan lortutako inklusioari buruz. Zer aukera daude jarduteko?



GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK (GJH)


- Euskadi Basque Country 2030 Agendaren eragina euskal gizartean (GJH zehatz baten azterketa)
- Espainiako edo Euskadiko enpresa batek GJHtarako egindako ekarpenaren azterketa (Telefónicaren, Ikearen, RPK Gasteizen kasuak?), benetako konpromisoa ala GJHwashing-a?
- 5. GJHa: Genero-berdintasuna, lan-merkatuaren bilakaera 2030 Agenda ezarri aurretik eta ondoren
- Lurralde-politikak eta 2030 Agenda (Erdialdeko Arabaren kasua)
- 2030 Agenda eta euskal nazioarteko lankidetzak, garapen-eredu berri bat (ala gatopardismoa)? (herrialde hartzaile baten kasu-azterketa)
- Garapen Jasangarrirako Helburuak: enpresek egiteko jarduketak zehatzak
- GJHak ETE-en enpresa-estrategian txertatzeko tresnak
- GJHak ETE-en enpresa-estrategian txertatzeko argudioak, produktibitateari, itzulkin sozialari edo GJHek emaitzen kontuan izan ditzaketan inpaktuari begira.
- Garapen Jasangarrirako Helburuak: erakunde publikoek ezarritako jarduketak eta jarduketak horien ebaluazioa

KOOPERATIBISMOA

- Energia berriztagarrien kooperatiben eragina ingurumenean: Goienarren kasua, La Corrienteren kasua
- Kooperatiben historia eta bilakaera Euskadin: Arrasateko kasua (Mondragon)
- Etxeko langileen mugimenduaren eta etxeko langileen kooperatiben sorreraren inpaktu ekonomiko eta sozialaren azterketa (Bizkaiko eta Gipuzkoako kasuak)
- Kontsumo-taldeak eta -kooperatibak Euskadin (Laboreren edo Karabelekoren kasuak)
- Kooperatiben nazioartekotzea: mugak eta erronkak
- Kooperatibismoa, etxebizitza duina izateko irtenbide gisa

EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA

- Ekonomia sozial eta solidarioaren rola krisi-garaian.
- Ekonomia sozial eta solidarioaren eragina egoera ahulean dauden kolektiboetan/lurraldeetan
- Ekonomia sozial eta solidarioaren bilakaera Euskadin, eta haren eragina euskal gizartean



- Ekonomia sozial eta solidarioaren hazkundearen erronkak
- Politikak eta gobernantza-esperientziak ekonomia sozial eta solidarioan
- Ekonomia sozialeko energia-sektorean azterketa
- Ekonomia sozial eta solidarioko esperientziak landa-lurraldeetan: Ekonomia birsortzailea.
- Adimen artifizialaren eragina ekonomia sozial eta solidarioan.
- Onura eta Interes Komunerako Sozietateak (SBIC), irailaren 28ko 18/2022 Legearen hamargarren xedapen gehigarrian jasotakoak (enpresen sorrera eta hazkunderi buruzko legea, irailaren 29ko BOEn argitaratua). Errealitatea ala *social washing*?
- ESSko toki-politiken rola Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) betetzerakoan.
- Ekonomia sozial eta solidarioaren rola zainketetan: eredu publiko-komunitario baterantz.

EKINTZAILTZAZA ESSan

- Enpresa sozial baten negozio-plana
- Ekonomia sozial eta solidarioko enpresen azterketa konparatiboa, erreplikatzeko
- Gizarte-ekintzailtza: definizioa eta ikuspegia erroskilaren ekonomiaren arabera
- Ekonomia sozial eta solidarioak zenbait lurraldetan izandako esperientzien (enpresen kudeaketa/politika publikoak) azterketa konparatiboa

Migratzaileen ekintzailtza ESSan:

- Ekintzailtza ESSan eta migratzaileen ekintzailtza. Zer lotura dago bien artean eta zer ekarpen egiten dio bakoitzak besteari.
- Bilboko migratzaile ekintzaileek lortutako finantziarioari buruzko txosten batean oinarrituta. Ekintzaile migratzaileen finantzaketa-beharrak ESSko aukeren bidez (mikrofuntsak sortzea, crowdfunding-a...) asetzeko proposamenak eskaintzeari buruzko ikerketa jarraitzea

ESSko ekintzailtzaren finantzaketa

- ESSko ekintzailtzak finantza etikoen bidez eskuratutako finantzaketari buruzko ikerketa.



- Gobernuz kanpoko erakundeen eta/edo enpresa sozialen finantzaketa-iturriak.

ESSko ekintzaitzaren inpaktua neurtzea:

- Nola txertatu kontu-ikuskaritza soziala eta inpaktua neurtzeko beste eredu batzuk ESSko ekintzaitzetan.
- Gizarte-inpaktuaren ebaluazioa: abantailak eta eragozpenak (B Corp-en kasua edo REASen kontu-ikuskaritza soziala).
- Gizarte-inpaktua neurtzea ESSko proiektuetan.
- Generoaren inpaktua neurtzea ESSko proiektuetan.
- Ingurumen-inpaktua neurtzea ESSko proiektuetan.
- KPlak (Key Performance Indicators) ESSko enpresetan.

ESSko ekintzaitzarako tresnak:

- Ekintzaitzarako tresnak ESSaren ikuspegitik (Canvas Sozialetik harago): proiektu tradizionalak ESSaren ikuspegira egokitzeko tresnak.

Komunikazioa ESSko ekintzaitzetan:

- Nola eman ESSko ekintzaitzaren balio sozial eta ekonomikoaren berri.
- Nola sortu ekonomia sozialerako komunikazio-tresnak
- ASG irizpideak (ingurumen-, gizarte- eta gobernantza-irizpideak) kontuan hartzen dituen komunikazioaren erronkak ESSan.

Ekintzaitzeta kolektiboa ESSan:

- Ekintzaitzeta kolektiboa, ESSan ekintzaile izateko estrategia gisa

Genero-berdintasuna ESSko ekintzaitzetan:

- Ekintzaitzeta sozial eta solidarioaren rola genero-desberdintasunak murrizteko orduan
- Zaintzen kudeaketa ekonomia sozial eta solidarioko enpresetan

Jasangarritasuna ESSko ekintzaitzetan:

- ESSko ekintzaitzaren jasangarritasuna eta sendotze-prozesuak
- Kulturarteko ekintzaitzeta kolektiboak, proiektuaren jasangarritasuna bermatzeko bidea?



EKONOMIA FEMINISTA

- Genero-ikuspegia duen ekonomia. Ekonomia feministak, zenbait jarrera eta ikuspegi.
- Ekonomia feministaren eta ekonomia solidarioaren arteko loturak
- Sexuagatiko eta generoagatiko desberdintasuna ekonomiaren eta enpresen aldagaietan
- Lanari buruzko beste kontzeptu bat. Alor merkantila, etxekoa eta zainketak
- Genero-ikuspegia Euskadiko politika ekonomikoan
- Genero-ikuspegia aintzat hartzen duten aurrekontuak. Erakundeen arteko alderaketa

EKONOMIA ZIRKULARRA


- Ekonomia zirkularra eta kontsumo kontziente eta arduratsua
- Ekonomia zirkularra: errealitatea ala marketina

ZERGA-ARLOA

- Zerga-harmonizazioaren ikuspegiak Europar Batasunean
- Zerga-justizia, zeharkako elementua enpresako talde interesdun guztiekiko
- 2030 Agenda bete ahal izateko fiskalitatea Adibideak lurraldean
- Zergen arloko gizarte-erantzukizuna enpresetan: estrategiak eta kasu praktikoak

IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEAK (IAGE)

- Gobernantza IAGE-etan: Mugarik gabeko Ekonomialarien kasua
- Gardentasunaren erronka IAGE-etan: Mugarik gabeko Ekonomialarien kasua
- Komunikazioa IAGE-etan: Mugarik gabeko Ekonomialarien kasua



DESAZKUNDEA

- Hazkunde ekonomikoa VS. desazkundera: Izan al daiteke desazkundera hazkunde jasangarriko modu bat?
- Desazkundera Euskadin aplikatzea. Gaur egungo egoera eta etorkizunean egin daitezkeen jarduketak.

BESTE GAI BATZUK

- Parte-hartezko aurrekontuak: Herritarrak inplikarazten dituzte benetan?
- Euskadin oinarrizko errenta unibertsala ezartzeari buruzko azterketa / Oinarrizko errenta unibertsala:
fikzioa ala alternatiba?
- Komunikazio jasangarria: Nola eman produktuen eta zerbitzuen jasangarritasunari buruzko informazioa eraginkortasunez
- Salaketak enpresetan: Nola heltzen zaien eta zer erronka dakartzaten
- Zahartze aktiboa: Adineko pertsonak lan-merkatuan sartzea
- Silver Economy: finantzen kudeaketa eta finantza-heziketa adinekoentzat
- Osasun mentalaren trataera lan-ingurunean
- Ustelkeria, garapen jasangarriko oztupoa
- Jasangarritasunarekin lotutako pizgarri publikoak.
- BPGd-arekiko alternatibak
- Adinekoen eskusio finantzarioa arrakala digitalaren ondorioz.
- Kontsumismoa: marketina, ondorio psikologikoak
- Pinkwashing-a
- Diruaren erradiografia: Diruaren kontzeptuari eta erabilgarritasunari buruzko gogoeta kritikoa, bai eta diruak gizartean duen funtzioari eta haren bizi-zikloan parte hartzen duten eragileetako bakoitzaren erantzukizunari buruzko gogoeta ere.
- Diruaren demografia: Dagoen diru-kantitateari eta 2023ko ekitaldiko diru-fluxuari buruzko ikerketa kuantitatiboa Espainiako estatuaren kasuari aplikatuta, diruaren “demografiaren” berri izateko makroekonomiaren aldetik.
- Erroskilaren ekonomia, azterketa eta aplikagarritasuna Euskadin. Paradigma berri bat ala greenwashing-erako tresna berri bat?